

EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

BAKERAKO ETA ELKARBIZITZARAKO LANTALDEA
PONENCIA PARA LA PAZ Y LA CONVIVENCIA

EUSKO LEGEBILTZARREKO BAKE ETA BIZIKIDETZA LANTALDEA

HUMANIZAZIOARI ETA ADISKIDETZE SOZIALARI BURUZ

Printzipio partekatuak:


- Bake oroimendunerako printzipioak.
- Berriro ez gertatzea bermatzeko konpromisoak. Pentsaera politiko guztiek partekatu beharreko printzipioak indarkeriari eta gatazka suntsitzaileei aurre hartzeko.

SARRERA

Etengabeko kezka eta okupazioa izan da bakea eta bizikidetza lortzen saiatzea Eusko Legebiltzarraren lan politiko eta instituzionalean erakunde hau sortu zenetik. Ezin bestela izan, demokraziaren bidetik herriak hautatutako Instituzioa izanik. Giza eskubide guztiez arduratzeak eta eskubide horiek hitzaren bidez defendatzeak, halaxe egin baita Ganbera honen hainbat legegintza-neurri eta ekimenen bitartez, Eusko Legebiltzarraren konpromisoaren fede ematen dute: etengabe bilatu du Euskadirako bake osokoa eta bizikidetza demokratikoa, bake iraunkorra, elkarrizketaren justiziaren, egiaren eta Euskal Herriaren interes orokorraren bitartez landua.

ETA jarduera armatua behin betiko uzten zuela iragarri zuen 2011ko urriaren 20an eta horrek panorama berri bat eta garai berri bat zabaldu ditu bakeari, bizikidetzari eta humanizazioari buruzko politikei ekiteko. Hamarkadak iraun ditu indarkeria suntsitzaileak eta giza eskubideen urraketak eta garai berri hau sendotzeko ezinbestekoa izango da ETA behin betiko desagertzea.

Legebiltzarreko lantalde honek sintetizatzen ditu azken hilabeteotan hainbat eragile sozial eta politikok egindako ekarpenak. Horien edukia printzipio eta konpromisoen proposamen batean ordenatu du.



Proposamenaren edukia lantalde hau osatzen dutenek garatutako entzunaldi, elkarriketa eta bateratze-lanaren emaitza da. Helburua da onartu eta partekatutako edukiak eskaintzea, bakera eta bizikidetzara eramango gaituztenak, halaxe exijitzen baitu euskal gizarteak eta herriaren borondatearen ordezkarien betebeharrak etiko, politiko eta demokratikoa baita.

I. PRINTZIPIO ETA KONPROMISOEN PROPOSAMENA

Giza eskubide guztien eta demokraziaren balioen defentsak erreferente politiko, instituzional eta soziala izan beharko du bake osokoa eta bizikidetzara demokratikoa eraikitzen joateko. Haren oinarriak aintzat izango ditu gure iragana eta etorkizunari begirako oraina.


Bake oroimendunerako printzipioak

Oinarrizko printzipioa

Etorkizuneko bake eta bizikidetzak eskatzen dute indarkeriaren bidegabekeria aitortzea, egindako mina eta biktimen duintasuna onartzea, biktima guztiek merezi baitute egia, justizia eta erreparaziorako eskubidea.

Printzipio espezifikoak

1. Erantzukizun printzipioa ezartzea: bakoitzak iraganean izandako erantzukizuna eta giza eskubideen urraketek dagozkien ondorioak zehaztu eta onartzea.
2. Oroimen kolektibo ez neutral eta aktiboa artikulatzea giza eskubideen urraketaren eta horren ondorioen aurka.
3. Kontsideratzea oroimena funtsezko tresna dela terrorismoaren deslegitimazio etiko, sozial eta politikorako.
4. Egia erdizkako, erreprimitu edo amnesikoa ekiditea: Gertakarien kontaketa objektiboaren bitartez, giza eskubideen aurkako urraketek buruzko egia partekatua konfiguratzeko.



5. Onartzea ezen, nahiz eta desiragarria izan gertatutakoari buruzko desberdinen arteko adostasun partekatu bat, interpretazio-aniztasuna gerta daitekeela giza eskubideen urraketaren sorburuari buruz, ondorioztatuz ezen eskubide horien urraketa oro talde eta pertsona batzuk giza duintasunaren aurretik beste helburu batzuk jarri zituztelako gertatu zela.
6. Saiatzea oroimen partekatu bat eraikitzea baliabide bat izan dadin biktimen sufrimendu bidegabea ekiditeko eta zigorgabetasuna ekiditeko, bai eta bake eta bizikidetzaren demokratikoa lortzeko ere. Oroimen honek etorkizuna birpentsatu eta eraikitzeko balio behar du gertatutakoaren kontaketa ainguratu gabe.
7. Gertatutakoaren berreraikitzearen lan egitea iristeko garai batera non, jazarpena eta mehatxua direla-eta euskal gizartean artean egon badagoen beldurra erauziz, iragan mingarri baten ateak itxi eta etorkizun denontzat itxaropentsu batenak zabaldu ahal daitezkeen.


Berrero ez gertatzea bermatzeko konpromisoak

Oinarrizko konpromisoa


Kausa politiko bat bera ere ezin da jarri etikaren eta giza eskubideen errespetuaren oinarrizko printzipioen gainetik. Giza eskubideak absolutu etiko bat dira edozein kausaren gainetik.

Konpromiso espezifikoak

1. Giza duintasunarekiko konpromiso etikoa: giza duintasunaren, pertsonaren eta horren ondoriozko giza eskubideen, eta lehenik bizitzaren, errespetua beste edozein kausa edo ideia politikoren edo Estatu arazoaren gainetik eta aurretik dago.
2. Euskal gizartearen aniztasunarekiko konpromiso demokratikoa.
3. Hitzarekiko, elkarrizketarekiko eta akordioak bilatzearekiko konpromiso demokratikoa: ez indarkeriak ez inposaketak ez dute balio diferentziak konpontzeko. Heziketa-tresna baten oinarria izango da hau, bereziki gazteria kontzientziatzeko inongo diferentzia, arazo edo gatazka ez dela konpontzen indarkeriaren



bidez, baizik eta elkarrizketaren bidez, entzutearen bidez eta balio
hauek ikasiz: denon arteko berdintasuna giza duintasunari
dagokionez, askatasuna, justizia, egia eta elkar errespetatzea.



PONENCIA PARA LA PAZ Y CONVIVENCIA DEL PARLAMENTO VASCO

SOBRE HUMANIZACIÓN Y RECONCILIACIÓN SOCIAL

Principios compartidos:


- Principios para una paz con memoria.
- Compromisos para la garantía de no repetición. Principios a compartir por todas las sensibilidades políticas para prevenir la violencia y los conflictos destructivos.

INTRODUCCIÓN

La búsqueda de la paz y la convivencia ha sido una preocupación y ocupación constante en la labor política e institucional del Parlamento Vasco desde su constitución. No podía haber sido de otro modo, tratándose de la Institución emanada de la voluntad popular en el ejercicio democrático. La atención a todos los derechos humanos, el ejercicio de su defensa por medio de la palabra plasmadas en numerosas medidas legislativas e iniciativas de esta Cámara, dan fe del compromiso del Parlamento Vasco con la búsqueda incesante de una paz integral y una convivencia democrática para Euskadi, una paz duradera trabajada en el diálogo, en la justicia, en la verdad y en el interés general del Pueblo Vasco.

El anuncio de ETA del cese definitivo de su actividad armada el 20 de octubre de 2011 ha abierto un nuevo panorama y un nuevo tiempo en los que abordar las políticas sobre la paz, la convivencia y la humanización. Tras décadas de violencia destructiva y de vulneración de los derechos humanos, la consolidación de este nuevo tiempo solo será posible con la desaparición definitiva de ETA.

Esta Ponencia parlamentaria sintetiza las diversas aportaciones hechas por distintos agentes sociales y políticos en el transcurso de los últimos meses. Ordena su contenido en una propuesta de principios y compromisos.



Lo contenido es el resultado de la escucha, el diálogo y la puesta en común desarrollada por los/las integrantes de esta ponencia. Su intención es ofrecer contenidos asumidos y compartidos que nos conduzcan a la paz y la convivencia, auténtica exigencia de la sociedad vasca y deber ético, político y democrático de los representantes de la voluntad popular.

I. PROPUESTA DE PRINCIPIOS Y COMPROMISOS

La defensa de todos los derechos humanos y de los valores de la democracia deberá ser referente político, institucional y social con el fin de ir construyendo una paz integral y una convivencia democrática. Su basamento tendrá en cuenta una mirada a nuestro pasado y una visión del presente que considere el horizonte futuro.


Principios para una paz con memoria

Principio básico

La paz y la convivencia futura requieren el reconocimiento de la injusticia de la violencia, el reconocimiento del daño causado y de la dignidad de las víctimas, todas ellas merecedoras del derecho a la verdad, la justicia y la reparación.

Principios específicos

1. Establecer el principio de responsabilidad: supone determinar y reconocer la responsabilidad de cada cual en el pasado y las consecuencias relativas a las vulneraciones de los derechos humanos.
2. Articular una memoria colectiva no neutral y activa contra la quiebra de los derechos humanos y sus consecuencias.
3. Considerar que la memoria constituye una herramienta esencial para la deslegitimación ética, social y política del terrorismo.



4. Evitar una verdad a medias, reprimida o amnésica: configurar, a través del relato objetivo de los hechos, la verdad compartida sobre las violaciones contra los derechos humanos.
5. Asumir que, aun siendo deseable un acuerdo compartido entre diferentes sobre las causas de lo ocurrido, se podrá dar una pluralidad de interpretaciones sobre la génesis de la vulneración de derechos humanos, concluyendo que todas las rupturas de dichos derechos se dieron porque grupos y personas antepusieron a la dignidad humana otros objetivos.
6. Procurar que la construcción de una memoria compartida sea un medio para aliviar el sufrimiento injusto de las víctimas y evitar la impunidad, así como para la consecución de la paz y la convivencia democrática. Esta memoria debe servir para repensar y construir el futuro sin anclarse en el relato de lo sucedido.
7. Trabajar desde la reconstrucción de lo sucedido para que llegue un tiempo en el que, erradicando el miedo que aún persiste en parte de la sociedad vasca por la persecución y la amenaza, se puedan cerrar las puertas de un pasado doloroso y abrir las de un futuro esperanzador para todos.


Compromisos para la garantía de no repetición

Compromiso básico

Ni una sola causa política puede situarse por encima de los principios básicos de la ética y el respeto a los derechos humanos. Los derechos humanos constituyen un absoluto ético por encima de cualquier causa.

Compromisos específicos

- 1 El compromiso ético por la dignidad humana: el valor del respeto a la dignidad humana, a la persona, y a los derechos humanos que de ella se derivan, la vida en primer lugar, es siempre superior y anterior a cualquier causa o idea política o a la razón de Estado.
2. El compromiso democrático con la pluralidad de la sociedad vasca.



3. El compromiso democrático con la palabra, el diálogo y la búsqueda de acuerdos: ni la violencia ni la imposición sirven para imponer las diferencias. Esta será la base de un instrumento educativo, en particular para concienciar a la juventud de que ninguna diferencia, problema o conflicto se soluciona por medios violentos sino por medio del diálogo, la escucha y el aprendizaje de los valores de la igualdad de todos en dignidad humana, de la libertad, de la justicia, de la verdad y del respeto mutuo.